

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**223/2019 Foru Agindua, abuztuaren 30koa, Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatzen dituen Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko zenbait konpentsazio / hitzarmen batzarren osieran izandako aldaketak**

#### AURREKARIAK

Bakarra. Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2019ko abuztuaren 1eko eta 2ko sarrera data duten hainbat idazkiren bidez udalerriko zenbait konpentsazio / hitzarmen batzarretako zuzendaritza organoetan izandako aldaketen berri eman dio Arabako Foru Aldundiari, Hirigintza intereseko Taldeen Arabako Erregistroan inskriba ditzan.

#### OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Tokiko gobernu batzarreko idazkariak ziurtatzen du 2019ko uztailaren 19an izandako ohiko bilkuran erabaki zela izendapen hauek egitea zenbait konpentsazio / hitzarmen batzarretan:

– Ana Oregi Bastarrika: 2. alkateorde eta Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Sai-leko zinegotzi ordezkari, sektore hauetako konpentsazio batzarretan udal ordezkaria izateko: 1, Borinbizkarra; 2 eta 3, Zabalzana; 4, Elejalde; 5, Aldaia; 6 Mariturri; 7 eta 8, Salburua; 9, Santo Tomas; 11, Ibaialde; 12, Arkaiate; 13, Larrein; eta 14, Olan.

– Ana Oregi Bastarrika: 2. alkateorde eta Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Sai-leko zinegotzi ordezkari, Izarra, 10 sektoreko konpentsazio batzarrean udal ordezkaria izateko.

– Ana Oregi Bastarrika: 2. alkateorde eta Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Sai-leko zinegotzi ordezkari, Aretxabaleta-Gardelegi, 19 sektoreko konpentsazio batzarrean udal ordezkaria izateko.

– Ana Oregi Bastarrika: 2. alkateorde eta Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Sai-leko zinegotzi ordezkari, Esmaltaciones, PERI 11ko konpentsazio batzarrean udal ordezkaria izateko.

– César Fernández de Landa Manzanedo: Ingurumen Plangintzaren eta Kudeaketaren zinegotzi ordezkari, 7 eta 8, Salburua; 12, Arkaiate; 13, Larrein; eta 14, Olan sektoreetako konpentsazio batzarretan udal ordezkaria izateko.

– César Fernández de Landa Manzanedo: Ingurumen Plangintzaren eta Kudeaketaren zinegotzi ordezkari, Aldaia, 5 sektoreko konpentsazio batzarrean udal ordezkaria izateko.

Bigarrena. Hirigintza kudeatzeko Arautegiak 164. artikuluan xedatzen duenez, hitzarmen batzarretan gertatzen diren gorabeherak, hala nola zuzendaritza organoko izendapen aldaketak, Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatuko dira.

Hirugarrena. Izandako aldaketak eta haiek erregistroan inskribatzeko proposamena onartzen zituen txosten arrazoitua egin du Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

**XEDATZEN DUT**

Lehenengoa. Agintzea Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko zenbait konpentsazio / hitzarmen batzarretako zuzendaritza organoan izandako aldaketak Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatzeko.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko abuztuaren 30a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**